Bestelako Xedapenak

KULTURA SAILA

1633

EBAZPENA, 2009ko otsailaren 13koa, Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordearena, Laguardiako (Araba) Hirigune Historikoa, Monumentu Multzo izendapenaz, sailkatutako kultura ondasun deklaratu eta hura zaintzeko babes arauak ezartzen dituen ekainaren 11ko 135/2002 Dekretua aldatzeko den espedienteari hasiera eman eta jendaurrean jarri eta interesdunei entzuteko dena.

Euskal Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legera egokitzeko ekainaren 11ko 135/2002 Dekretuaren bidez (ekainaren 28ko EHAAren 122 zk.-an argitaratua, eta haren hutsen zuzenketa abuztuaren 2ko EHAAren 146 zk.), Laguardiako (Araba) Hirigune Historikoa, Monumentu Multzo izendapenaz, Kultura Ondasun gisa deklaratu zen, eta haren babes-eremua finkatu zen. Laguardiako harresiari babes berezia eman zitzaion dekretu horretan.

Harresi honen babes-eremuari dagokionez, Laguardiako (Araba) Hirigune Historikoa, Monumentu Multzo izendapenaz, Kultura Ondasun gisa deklaratzen duen ekainaren 11ko 135/2002 Dekretuaren Babes Erregimenaren 6. eta 23. artikuluetan interpretazio-zalantzak zeudenez gero, Kultura Ondarearen Zentroko zerbitzu teknikoek txosten bat landu zuten artikulu horien idazketa berria proposatzeko.

Kultura Ondarearen Zentroko Zerbitzu Teknikoek egin dituzten txostenak ikusirik, uztailaren 3ko 7/1990 Euskal Kultura Ondareari buruzko den Legeko 11. eta hurrengo artikuluekin bat etorriaz, honako hau

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Laguardiako (Araba) hirigune historikoa kultura ondasun gisa monumentu multzo izendapenaz kalifikatzen duen ekainaren 11ko 135/2002 Dekretua aldatzeko espedientea hastea eta jendaurrean jartzea. Aldaketa, Ebazpen honetako I. eranskinean ezartzen dena da (aipatutako dekretuaren Babes erregimenaren 6. eta 23. artikuluen idazkera berria). Ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita, hogei eguneko epea izango da alegazioak egin eta egokitzat jotzen diren agiriak aurkezteko, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 84. eta 86. artikuluetan jasotzen den bezala. Aipatutako espedientea Vitoria-

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE CULTURA

1633

RESOLUCIÓN de 13 de febrero de 2009, del Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes, por la que se incoa y somete a información pública y audiencia a los interesados el expediente para la modificación del Decreto 135/2002, de 11 de junio, por el que se calificó como Bien Cultural, con la categoría de Conjunto Monumental, el Casco Histórico de Laguardia (Álava), y se fijó su régimen de protección.

Mediante Decreto 135/2002, de 11 de junio, de adaptación a la Ley 7/1990, de 3 de julio, del Patrimonio Cultural Vasco (BOPV n.º 122 de 28 de junio y corrección de errores BOPV n.º 146 de 2 de agosto), se calificó el Casco Histórico de Laguardia como Bien Cultural, con la categoría de Conjunto Monumental, fijándose su régimen de protección. La muralla de Laguardia figura con Protección Especial en el citado Decreto.

En referencia al régimen de protección establecido para esta muralla, los Servicios Técnicos del Centro de Patrimonio Cultural elaboraron un informe en el que proponían una nueva redacción de los artículos 6 y 23 del Régimen de Protección del Decreto 135/2002, de 11 de junio, por el que se calificó como Bien Cultural, con la categoría de Conjunto Monumental, el Casco Histórico de Laguardia (Álava), debido a las dudas interpretativas que se desprenden de los citados artículos.

Conforme a los informes elaborados por los Servicios Técnicos del Centro de Patrimonio Cultural, y de acuerdo con lo dispuesto en los artículos 11 y siguientes de la Ley 7/1990, de 3 de julio, del Patrimonio Cultural Vasco,

RESUELVO:

Primero.– Incoar y abrir un período de información pública y audiencia a los interesados del expediente de modificación del Decreto 135/2002, por el que se calificó como Bien Cultural, con la categoría de Conjunto Monumental, el Casco Histórico de Laguardia (Álava) y se fijó su régimen de protección. La modificación será la establecida en el anexo I de la presente Resolución (nueva redacción de los artículos 6 y 23 del Régimen de Protección del citado Decreto). Durante el plazo de 20 días contados a partir del día siguiente a la publicación de esta Resolución en el Boletín Oficial del País Vasco, se podrán efectuar las alegaciones y presentar la documentación que se estime oportuno, como previenen los artículos 84 y 86 de la Ley 30/1992, del Ré-

Gasteizko Donostia kaleko 1. zenbakian dagoen Euskal Kultura Ondarearen Zentroan.

Bigarrena.– 135/2002 Dekretua aldatzeko espedientean interesdun direnei jakinaraztea. Interesdunek jakinarazpena jaso eta, biharamunetik zenbatzen hasita, hamabost eguneko epea izango dute beren eskubideak defendatzeko egoki iritzitako alegazioak eta dokumentuak aurkezteko.

Hirugarrena.– Espedientearen izapidetzari jarraitzea indarreko arautegiaren arabera.

Laugarrena.– Ebazpena Laguardiako Udalari, Arabako Foru aldundiko Kultura eta Hirigintza Departamentuei eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailari jakinaraztea.

Bosgarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Arabako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, jende guztiak horren berri izan dezan.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko otsailaren 13a.

Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordea,
GURUTZ LARRAÑAGA ZUBIZARRETA.

gimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, encontrándose el expediente de manifiesto en el Centro de Patrimonio Cultural Vasco, sito en la calle Donostia-San Sebastián n.º 1 de Vitoria-Gasteiz.

Segundo.– Notificar a los interesados el expediente de modificación del Decreto 135/2002, para que, durante el plazo de 15 días contados a partir del día siguiente a la recepción de la notificación, puedan efectuar alegaciones y presentar la documentación que estimen pertinente en defensa de sus derechos.

Tercero.– Continuar con la tramitación del expediente, de acuerdo con las disposiciones en vigor.

Cuarto.– Notificar la presente Resolución al Ayuntamiento de Laguardia y a los Departamentos de Cultura y Urbanismo de la Diputación Foral de Álava, así como al Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio del Gobierno Vasco.

Quinto.– Publicar la presente Resolución en el Boletín Oficial del País Vasco y en el Boletín Oficial de Álava para su general conocimiento.

En Vitoria-Gasteiz, a 13 de febrero de 2009.

El Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes,
GURUTZ LARRAÑAGA ZUBIZARRETA.

I. ERANSKINA

BABES-ARAUBIDEAREN 6. ETA 23. ARTIKULUEN IDAZKERA BERRIA

6. artikulua.– Harresiak.

Harresietako esku-hartzeak egin ahal izateko, Foru Aldundiko organo eskudunaren baimena beharko da.

23. artikulua.– Babes bereziko mailan barne hartutako osagaien preskripzioak:

1.– Babes berezia duten eraikinek babes maila gorena dute, eta berorietan burutzen diren zaharberritze jarduerek beren egitura eta ezaugarriak mantendu beharko dituzte. Hortaz, ekarpen edo diseinu berririk ezin egin ahal izango da.

2.– Bereziki babestutako ondasunen eraiketa osoa edo partziala Euskal Kultur Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legearen 36. artikuluan xedatutakoaren arabera bakarrik baimendu ahal izango da.

3.– Eraikin horiek ukitzen dituen lan edo esku-hartze orotan beren eite bolumetrikoa nahiz lerrokadurak mantendu beharko dira.

ANEXO I

NUEVA REDACCIÓN DE LOS ARTÍCULOS 6 Y 23 DEL RÉGIMEN DE PROTECCIÓN

Artículo 6.– Las Murallas.

Las intervenciones a realizar sobre las murallas quedarán sujetas a autorización del órgano competente de la Diputación Foral.

Artículo 23.– Prescripciones de los elementos incluidos en el nivel de protección especial:

1.– Los elementos sometidos a protección especial son objeto del nivel superior de protección, y las actuaciones de restauración que en ellos se realicen deberán respetar su estructura y características, y en ningún caso podrán suponer aportaciones de reivindicación o nuevo diseño.

2.– El derribo total o parcial de los bienes especialmente protegidos sólo podrá autorizarse de conformidad con lo dispuesto en el art. 36 de la Ley 7/1990, de 3 de julio, sobre Patrimonio Cultural Vasco.

3.– en toda obra o intervención que afecte a estos elementos, se deberá mantener, tanto su configuración volumétrica, como sus alineaciones.

4.– Higiezin horiei ematen zaien erabilerak berorien kontserbazioa bermatu beharko du, Euskal Kultur Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legeko III. Tituluaren zehazpenak inola ere urratu gabe.

5.– Eraikin horietan berorien kontserbazioa eta balioespena bermatzera bideratutako eraikuntzako esku-hartzeak baimenduko dira, eta horretarako Ondare Hiritartu eta Eraikia Birgaitzeko jarduera babestuei buruzko 214/1996 Dekretuan Zaharberritze Zientifikorako ezarritako lanen gauzapena baimenduko da.

4.– El uso a que se destinen estos inmuebles deberá garantizar su conservación, sin contravenir, en ningún momento, las especificaciones del Título III de la Ley 7/1990, de 3 de julio, de Patrimonio Cultural Vasco.

5.– Se permitirán en estos elementos las intervenciones constructivas dirigidas a la conservación y a la puesta en valor de los mismos, permitiéndose a tal efecto la realización de las obras establecidas para la Restauración Científica en el Decreto 214/1996 sobre actuaciones protegidas de rehabilitación del Patrimonio Urbanizado y Edificado.